



# Tolosako Herriarren Batzarra



Argazki eta marrazki guztiak Prometea SC-k eginak dira



## Zer da deliberazio prozesu bat?

Gero eta konplexuagoa den gizarte honetan, Tolosako Udalak elkarlana, partaidetza, komunitatea eta lankidetzaren oinarri dituen gobernantza eredu berrietan irmoki sinesten du. Eta hain zuzen eredu berri horiek herrian errotu eta indartzeko, estrategia berritzaile eta ausartak garatzen jarraitzen du, herritarren eguneroko beharrei eta herri bezala Tolosak dituen etorkizuneko erronkei modu eraginkor, parte hartzaile eta adostuagoan aurre egin eta erantzuteko.

Urrats edo estrategia berritzaile horien artean kokatzen da 2022an garatutako Tolosako lehen Herritarren Batzarra, herritarrekin lankidetzan, elkar-laguntzeko, esperientziak partekatzeko eta elkarrengandik ikasteko deliberazio prozesua, alegia. Herritarren Batzarrek Demokrazia Deliberatiboaren markoari erantzuten diote eta helburu dute, hain zuzen, gizarte erronka bati erantzuna emateko, erakunde publikoen eta herritarren arteko lankidetzaren sustatzea eta gizarte berrikuntzaren esparrutik, herritarren inplikazioa indartzea.

Tolosa aitzindari izan da horrelako prozesu baten garapenean.

Parte hartze prozesu berritzaile honek urrats ezberdinak izan ditu. Lehenik eta behin udalak gaia zehaztu du, Herritarren Batzarra osatzeko zozketa zibikoa egin da eta ondoren, prozesua bera diseinatu da. Herritarren Batzarrek lehen saioetan informazioa jaso du adituen eskutik, ondoren informazio hori aztertu eta adostasunak bilatzeko deliberatu egin dute eta azken pauso gisa, agintari publikoei aurkezteko gomendio zehatzak garatu dituzte.

Tolosako Herritarren Batzarra aurrera eramateko Tolosako Udalak, Komunitatea eta Gobernantza sailaren gidaritzapean, Arantzazulab Gizarte Berrikuntza Laborategiaren eta ELGA/OCDE antolakundearen bide-laguntza izan du. Egitasmo hau Tolosatzen Eskola irekiko sendotze-komunitarioko lan larroaren baitan ere kokatzen da.

Esku artean duzun dokumentu honek Tolosan aurrera eraman den eta aitzindaria izan den lehen Herritarren Batzarren prozesuaren xehetasunak eta nondik norakoak jasotzen ditu, baita, noski, planteatutako erronkari erantzuteko batzarkideek landu eta aurkeztutako 14 gomendioak eta Tolosako Udalak horietako bakoitzari emandako erantzuna ere.



## Zer da herritarren batzarra? Nork osatu du?

Herritarren Batzarra gizarte berrikuntzaren eta esperimentazioaren bide-tik parez pareko erronka konplexuei elkarlanetik erantzuteko taldea da, politika publikoen garapenean herritarrak inplikatzeko, konfiantzazko harremanak eratzeko eta entzute aktiboa indartzeko taldea, alegia.

Tolosako Herritarren Batzarra 2022ko urritik abendura bitartean aritu da deliberatzen.

Tolosako komunitatearen aniztasuna bermatuz, zozketa zibikoz aukeratu-tako **profil ezberdinetako 32 herritarrek osatu dute Herritarren Batzarra**. Lehen zozketa udal errolda baliatuz egin zen, (16 urtetik gorako biz-tanle guztien artean) eta hautatuak izan ziren 2400 pertsonen prozesuan parte hartzeko gonbidapen gutuna jaso zuten. Horietatik izena eman zutenen artean bigarren zozketa bat egin zen 32 pertsonen osatutako taldea eratzeko.

## Udalak zehaztuta gaia, erantzun beharreko galdera:

Tolosaren kasuan, tolosarren osasun eta ongizate emozionala izan da Udalak aukeratutako erronka sozial kolektiboa, duen dimentsio eta konplexutasunagatik erantzun kolektiboa eskatzen duelako. Hori oinarri hartuta, batzarkideek ondo-rengo galderari erantzun diote:

**“Zer egin dezake Tolosako Udalak lankidetzako publiko komunitarioaren bidetik, guztion osasuna eta ongizate emozionala hobetuko duen Tolosa lortzeko?”**





Tolosako Herritarren Batzarraren diseinua 2022ko urtarrilean hasi zen, Jarraipen Batzordearen sorrerarekin. Batzorde hori Tolosako Udalean ordezkari-tza duten alderdi politiko guztietako ordezkari-ek osatzen dute, baita Herritarren Batzarra diseinatu eta inplementatu duten erakunde bakoitzeko ordezkari-ek ere. Prozesua diseinatu eta lantzeko garaian, Jarraipen Batzordeak lagungarri-ak izan ziren for-makuntza saio-ak jaso ditu ELGA taldearekin.






# Prozesua: formakuntza eta deliberazioa 5 saiotan



## Formakuntza eta deliberazio saioak




Behin aurre lanak amaituta, 2022ko urriaren 22an eman zitzaion hasiera Tolosako lehen Herritarren Batzarrari. 32 batzarkideak 40 orduz lan egin dute 5 larunbatetan 2022ko urritik eta 2022ko abendura bitartean, Prometea eta Aztikerreko erraztaileen laguntzarekin.

Hiru fasetan banatuta eraman da aurrera prozesua: informazio fasea, deliberazio fasea eta gomendioen lanketa eta aurkezpena. Lehen fasean, batzarkideek osasun emozionalaren eta ongizatearen inguruko informazioa jaso dute hainbat aritu eta adituen eskutik, ondoren, horren inguruan hitz egin, hausnartu eta gomendioak landu ahal izateko. Hori horrela, lehen hiru saioetan guztira 10 aditu eta arituren hitzaldiak jaso zituzten eta informazio fasea ixteko, Tolosako esperientziak ere ezagutu zituzten, tokiko eragileen eskutik.

Azken bi saioak entzun eta ikasitakoaren inguruan deliberatzera bideratu ziren. Saio horietan, bost taldetan banatuta, batzarkideek hasierako galderari erantzuteko 14 gomendioak landu zituzten eta horiek abenduaren 17an egindako itxiera saioen aurkeztu zituzten. Gomendioek, halaber, adostasun eta babes maila handia jaso zuten, batzarkideen %80 baino gehiagok babestu baitzituzten. Garatutako 14 gomendioez gain, prozesuan zehar sortu diren beste hainbat ideia jaso ziren hazien txokoa deitutako atalean eta udalari aurkeztutako txostenean gehitu ziren.

### Tolosako Herritarren Batzarrean parte-hartu duten aditu-arituak:

- Tolosako Udaleko ordezkariak
- Arantzazulabeko ordezkariak
- Iñaki Izquierdo
- Eva Salaberria
- Ainara Aranberri
- Sorkunde Jaka
- Fernando Fantova
- Martin Zuñiga
- Amaia Uriarte
- Pepa Bojo
- Jone Miner
- Adriana Martinez
- Maider Sierra
- Mireia Roca
- Ixa Imaz
- Garikoitz Murua



#### ▼ 2022-10-22

**Aurkezpen saioa:** Egitasmoaren helburuak, ezaugarriak... eta lehen lau adituen saioak: osasun eta ongizate emozionalaren eta lankidetzako publiko-komunitarioaren marko orokorra.

#### ▼ 2022-11-05

**Ongizate emozionalean eta lankidetzako publiko-komunitarioan sakonduz:** bakardadea, zahartzarora, haur eta gazteak, genero ikuspegia eta berdintasuna osasunean, hirigintza eta osasuna, teknologia komunitarioa...

#### ▼ 2022-11-19

**Deliberazio fasearen hasiera:** Informazio fasea itxi eta Tolosako esperientziak tokiko eragileen eskutik ezagutzeko eta deliberazioari heltzeko saioa.

#### ▼ 2022-12-03

**Deliberazioan sakonduz:** 5 taldetan banatuta, entzun eta ikasitakoaren inguruan hausnartzen jarraitzen dute batzarkideek.

#### ▼ 2022-12-17

**14 gomendioen aurkezpena:** prozesuaren hasieran egindako galderari erantzuteko landutako gomendioak aurkezten dizkiete batzarkideek udal ordezkariak.





# Herriarrek landutako 14 gomendioak

Tolosako lehen Herriarren Batzarrak guztion osasuna eta ongizate emozionala hobetuko duen Tolosa lortzeko 14 gomendio zehatz egin ditu. Atal honetan, gomendio horiek guztiak jasotzen dira, herriarren hitzetan.

Gomendioak aurkezteko garaian, batzarkideek gomendio horren justifikazioa edo zergatia azaldu dute eta ondoren, horren deskribapena egin dute, adibideen bitartez. Gomendio bakoitzak, halaber, hartzaile nagusiak (herriarrek, gazteak, adinekoak, Udala...) eta inplikaturak dituen eragileak jasotzen ditu (elkarteak, hezkuntza arloko eragileak, kolektiboak, Jabetze Eskola...).

## Gomendioen koadro orokorra

| Gomendioa   | Babesa            | Aurre-kontua | Epeak     |
|---|-------------------|--------------|-----------|
| <b>A</b> Arkitektura inklusiboa   | ✓ Bai             | Bai          | 2023      |
| <b>B</b> Tolosarren ongizate emozionalaren egoera ezagutzen   | ✓ Bai             | Bai          | 2025-26   |
| <b>C</b> Denok dugu boluntario bat barruan  | ✓ Bai             | Bai          | 2024-27   |
| <b>D</b> Ongizate emozionalerako laborategia: Labea edo baratza kolektiboa  | ✗ Ez              | Ez           |           |
| <b>E</b> Herriarren beharrak herriko zerbitzuekin asetzeko informazio gunea   | — Bai aldaketekin | Bai          | 2024-25   |
| <b>F</b> Etxegazte  | ✓ Bai             | Bai          | 2024-25   |
| <b>G</b> Arrakala digitala gaitzen  | ✓ Bai             | Bai          | 2024      |
| <b>H</b> Nerabeak, LGTIQ+, suizidioa: arreta, hezkuntza eta esku-hartzeko programa  | ✓ Bai             | Bai          | 2024-26   |
| <b>I</b> Existitzen diren asoziazioetan boluntariotza garaikidea esperimintatzea: tutoretza, bitartekaritza, bidelaguntza zerbitzua | — Bai aldaketekin | Bai          | 2024-26   |
| <b>J</b> Ontzi komunikatzaileak. Harremanak eta sareak sortzen dituzten ekimenak (adinik gabe)                                      | — Bai aldaketekin | Ez           | 2025      |
| <b>K</b> Espazioa eta aisia, gazteak (13/18)  | — Bai aldaketekin | Bai          | 2023-2024 |
| <b>L</b> Gazteak eta elkarte gastronomikoak   | ✗ Ez              | Ez           |           |
| <b>M</b> Gune berdeak   | ✓ Bai             | Bai          | 2023      |
| <b>N</b> Konfidantza instituzionala: parte hartzeko dinamika iraunkorrak  | ✓ Bai             | Ez           | 2023-2024 |



# Arkitektura inklusiboa

## A.1 Batzarkideen gomendioa

HITZ  
GAKOAK  
▼  
  
Inklusioa  
Ongizatea  
Kolektibotasuna

### ▼ Justifikazioa

- Pertsona guztiek, desberdintasunak eta dibertsitateak alde batera utzita, espazio publikoa eta bertako elementuak, altzariak eta abar ERABILTZEKO eta GOZATZEKO aukera izatea, eta hala, haien osasun emozionala hobetzea, herriaren parte sentituko liratekeelako, eta auto-estimua eta ongizate emozionala ere hobetzea. Horretarako, arkitektura oztopotsua traba da, eta traba hori kentzeak hobetu egingo da herritarren ongizatea.

Oharra: Gurpil-aulkian ibiltzen den pertsona batek ezin baditu zaborrak bere kabuz bota, lehengo zaborrontziaren orde z haren beharretara egokituko den zaborrontzia jarrita, autono-mia handituko zaio, eta horrek autoestimua eta ongizatea hobetzea ekarriko dio. Sentituko du Udalak kontuan hartzen duela bera ere herriko parte senti dadin.

### ▼ Deskribapena

HIRIKO ELEMENTUAK ETA ALTZARIAK aldatzeko plan bat prestatzea eta gauzatzea, herritar guztien irisgarritasuna eta erabilera bermatzeko, edozein dela ere haien generoa, dibertsita-te eta zailtasun funtzionala, orientazioa eta abar.

Adibideak:

- Estalitako espazio «zainduak» izatea: eserlekuak, mahaia...
- Mantentze-lanak kontuan izatea (garbiketa, zaborrak...).
- Iradokizunen postontzi bat, aplikatu beharreko hobekuntzak edo behar urbanistikoak jasotzeko.
- Txakurrentzako berariazko espazio bat.
- Klima aldaketa aintzat hartzea (itzal naturalak sortzea, espazio berde gehiago...).

### ▼ Nori zuzenduta dago?

- Herritarrei, oro har.

- Kolektibo «esklusiboei»: talde minoritarioak (aniztasun funtzionala, kaleko kolektiboak, genero-identitateak...).

### ▼ Inplikaturako eragileak

- NAGUSIA: TOLOSAKO UDALA.

- LAGUNTZAILEAK: Lehen aipatu ditugun kolektibo minoritario horiek, Udalari informazioa eta laguntza eman diezaioten herritarrentzako hobekuntza horiek ahalik eta zehatzen lortze aldera.

### ▼ Besterik?

- Estalitako espazio «zainduak» izatea: eserlekuak, mahaia...

- Mantentze-lanak kontuan izatea.

- Iradokizunen postontzi bat, aplikatu beharreko hobekuntzak edo behar urbanistikoak jasotzeko.

- Txakurrentzako berariazko espazio bat.

- Klima aldaketa aintzat hartzea (itzal naturalak sortzea, espazio berde gehiago...).

## A.2 Gomendioari erantzuna

PROPOSAMENA  
BETETZEKO  
KONPROMISO-  
MAILA  
▼  
  
KONPROMISOA  
HARTZEN DA

Udalak modu orokorrean babesten du gomendioa eta hirigintza inklusiboa sustatu eta areagotze aldera udal departamentu arteko batzordea eratuko du, egungo egoeraren diagnostikoa burutuz eta hirigintza inklusiboa helburu duen Tolosako aktuzio-irizpideak zehazten dituen protokoloa landuz kolektibo desberdinen hartzearekin.

### ▼ Tolosako Udalak gomendioarekiko bisioa

Inklusibitatea gure herrietako hiri-bizitzaren kalitateaz arduratzen den dimentsio anitzeko feno-meno bezala definitu dezakegu. Hiriak diseinatzerakoan kontuan hartu behar dira lan produkti-boez gain lan erreproduktiboak ere, eguneroko bizitzako egitekoak, alegia.

Horregatik, Arkitekturaren Diseinu Unibertsalaren printzipioa jarraituz eta hirigintza inklusiboaren bidetik, egokitzen gabe edo diseinu espezializatuaren beharrik gabe diseinatutako ingurune eta zerbitzuak ahalbidetu beharko lirateke, irisgarritasuna bermatzea bakarrik ez bai da nahikoa.

### ▼ Zer egingo du Tolosako Udalak?

- A.1- Udalean zeharkako batzorde bat sortu.**  
Hirigintza sailaren zuzendaritzapean eta gomendioarekin lotura zuzena duten sailak bertan parte hartzen dute.
- A.2- Gaur egungo egoeraren diagnostikoa egingo da.**  
Departamentu desberdinetan dauden planak eta informazioa aztertuko da diagnostikoa egiteko. Hala nola, Mugikortasun Plana, Genero ikuspegitik Hirigintzaz egindako azterketa, haur, nerabe eta gazteen diagnostiko eta plana, Tolosa 2050 Klima Plana, e.a.
- A.3- Eskuarlean ditugun Plan eta Proiektuak gauzatu herritarren parte hartzea sustatuz.**  
Hala nola, Irisgarritasun plana, Mugikortasun Planeko ekintzak, Udal ekipamenduen berrantolake-ta plana...
- A.4- Tolosako aktuzio-irizpideak zehazten dituen protokoloa.**  
Zeharkako batzordeak lideratuta, hirigintza inklusiboa helburu duen Tolosako aktuzio-irizpideak zehazten dituen protokoloa landuko da. Oro har, kaleak eta espazio publikoak berriz urbanizatzekoan eta udal eraikinak birgaitzerakoan kontutan hartzeko inplikaturako eragile guztiek.

### ▼ Inplikaturako sailak

Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak, Ingurumena, Berdintasuna, Gazteria, Kirola, Gobernantza eta Komunitatea, Gizarte zerbitzuak.

### ▼ Aurrekontua

A.4- Irisgarritasun plana eguneratzea 50.000 €.

Gainontzean 2024rako zehaztu beharko dira partida ekonomikoak.

### ▼ Epeak

2023 Batzordea sortu eta egungo egoeraren diagnostikoa.

2023 Irisgarritasun Plana eguneratu.

2025 Aktuzio-irizpideen protokoloa.

# Tolosarren ongizate emozionala ezagutzea

## B.1 Batzarkideen gomendioa

HITZ  
GAKOAK

Emozioak  
Beharrak  
Mapaketa

Justifikazioa

- Tolosako herritarren ongizate emozionalaren nondik norakoak ezagutzea, zer behar dauden ezagutu eta erantzun egokiak emateko.

Deskribapena

- 1- Partaidetzan oinarritutako diagnostiko xehe bat egitea herritarren ongizate emozionalari buruz, askotariko leku, une eta egoeratan sortzen diren emozioak aintzat hartuta. Horretarako, honako hauek izango dira kontuan: adina, kolektiboa (LGBTIQ+), bakarrik bizi diren adinekoak, generoa, jatorria, auzoa... Hala, bateko eta besteko bizipenetan sortzen diren beharrak detektatuko dira partaidetzan oinarritutako diagnostiko baten bidez.
- 2- Beharrak detektatu ondoren, Tolosak abian dituen zerbitzu, jarduera, ekimen, espazio eta abarren mapaketa egingo dugu. Horrela jakingo dugu ea baditugun detektatutako behar horiek asetzeko baliabide egokiak.
- 3- Baliabide berriak sortzeko beharra ikusten bada, sortu egin behar dira, haien euskarri izango den egitura profesional bat bermatuta.

Nori zuzenduta dago?

- Herritar guztiei.

Inplikaturako eragileak

- Udala, hezkuntza arloko erakundeak, elkarteak.

Besterik?

- Gomendio hau E gomendioarekin dago lotuta.

## B.2 Gomendioari erantzuna

PROPOSAMENA  
BETETZEKO  
KONPROMISO-  
MAILA

KONPROMISOA  
HARTZEN DA

Udalak modu orokorrean babesten du gomendioa eta Tolosako herritarren ongizate emozionalaren inguruko diagnostikoa eta azterketa burutuko du. Era berean, Tolosan dauden eta gaiarekin lotura duten zerbitzu, jarduera, ekimen, espazioak eta erakundeak identifikatuko dira.

Tolosako Udalak gomendioarekiko bisioa

Tolosako Udalak, bere eskumenen garapenean eskuartean duen erronka da herritarren ongizate fisikoa, mentala, emozionala eta soziala sustatuko duten zerbitzu, programa eta egitasmoen garapena. Horiek oinarritzerakoan eta eraikitzerakoan, informazioa beharrezkoa da; dagoen egoera identifikatzeko eta atzemandako beharren erantzuna diseinatzerakoan, erabili beharreko datuak. Ondorioz, zuzenean edo zeharka, pertsonen eta herritarren ongizate emozionalaren inguruko

azterketak bideratzeko aukera sortu den aldietan, bete-betean ekin dio zeregin horri Tolosako Udalak. Dena den, azpimarratu behar da ongizate emozionalaren azterketa oso zeregin konplexua dela, pertsonen ongizate emozionalean eragiten duten faktoreak ugari direlako. Ondorioz, diagnostikoaren aurretik gogoeta egin beharko da pertsonen ongizatean eragiten duten faktore horiek ongi definitzeko eta objektibatzeko.

Zer egingo du Tolosako Udalak?

B.1- Ongizate emozionaleko egoeraren diagnostiko parte-hartzailea eta zehatza egitea:

Ongizate emozionalaren diagnostikoa bi faseetan garatuko da. Hasiera batean, azterketa prestatzeko eta horretan eragiten duten faktoreak objektibatzeko lanketa egingo da, Udalean Herritarren lan esparruko lantaldea osatuko da eta zeharkako egitasmo moduan garatu. Era berean, azterketa hori erakundeartekoa izango da eta, besteak beste, osasun arloan, hezkuntza arloan, enplegu arloan, diharduten erakunde, elkarte eta zerbitzuetako erreferenteekin elkarlanean bideratuko da. Baita, herritar eta herri eragileekin batera ere. Bigarren fasean, diseinatutako diagnosia egiteko datuak bilduko dira, horien analisisa egingo da, eta dagozkion ondorioak aterako dira, tolosarrekin ongizate emozionalaren alorrean dituzten beharrak identifikatuz eta erantzuteko proposamenak jorratuz. Diagnosia enpresa espezializatu batek garatuko du.

B.2- Erakunde, zerbitzu eta elkarteen mapaketa. Gida.

Era berean, Tolosan abian dauden zerbitzu, jarduera, ekimen, espazio, etabarrak jasoko dituen mapa egitea proposatzen da. Hasiera batean identifikatu behar dira pertsonen ongizate emozionalean eragina duten zerbitzu guztiak, zerbitzu horiek eskaintzen dituzten erakunde eta elkarte guztiak, eta informazio hori erraz kudeatzeko eta informazio eguneratua herritarren eskura jartzeko modua aurkitu. Ez da ahaztu behar Tolosan hainbat eta hainbat zerbitzu daudela Udalaren jardun esparrutik haratago herritarren ongizate emozionalean eragina izan dezaketenak. Eta horregatik, Tolosako Udalak zerbitzu bakoitzaren egizkizunak eta arduen definizioa egingo du, informazio guzti hori modu errezean identifikatzeko euskarriak sortuz: Elkarte eta erakundeen gida.

Inplikaturako sailak

Herritarrek lan esparrua. Erakunde arteko lanketarekin eta herritar eta herri eragileekin.

Aurrekontua

B.1. Diagnostikoa egiteko: 10.000 (1. fasea) – 15.000 (2. fasea). // B.2.- Mapaketaren eta gidaren euskarriak E gomendioarekin aurreikusi beharko dira.

Epeak

B.1- 2025 (1. fasea)- 2026 (2.fasea)  
B.2- 2026



# Denok dugu boluntario bat barruan

## C.1 Batzarkideen gomendioa

### HITZ GAKOAK



**Tolosako herritarren artean boluntariotza sustatzea**

#### ▼ Justifikazioa

Onura bikoitza:

- Pertsonala, egiten duena hobeto sentitzen da.
- Kolektiboa, jasotzen duena ere bai.

Boluntario izateko eta horren jarraitzeko konpromisoa hartzeko beharra detektatu da Tolosako askotariko elkarteetan.

#### ▼ Deskribapena

Boluntariotza motak: sortuta dauden taldeetan parte hartzea sustatzea, GKE berriak sortu gabe. Belaunaldien arteko harremanak sustatzea (esperientzien transmisioa), gizarte-integrazioa bultzatzea (etorkinak...) eta kanpoan eta naturarekin lotuta egiten diren jardueri balioa ematea. «Auzolana» kontzeptua garatzea.

Boluntariotza sustatzeko moduak bilatu behar dira askotariko pizgarriak erabiliz: gazteentzako kultura bonuak, jarduerak doan...; erretiratuentzat jarduerak doan, sareak sortzen laguntzeko otorduak...

Oso garrantzitsua da boluntariotza nola saltzen den: ezin du beldurrik eman (ordu gehiegi, betirako...), ilusioa saldu behar da.

#### ▼ Nori zuzenduta dago?

- Gazteei: gazteek konturatu behar dute boluntario bat dutela haien baitan.
- Erretiratuak: nahiko aktiboak dira, badakite, baina askok norbait ondoan izatea behar dute boluntariotza-lanari ekiteko.
- (Adin ertainekoak kanpoan gelditzen dira: denbora falta, familiako edo laneko konpromisoak).

#### ▼ Inplikaturako eragileak

- Gazteak: ikastetxeak («Proiektu komunitarioa» irakasgai berria DBHn), kirol-klubak, musika taldeak, aisialdiko taldeak...
- Erretiratuak: Adinekoen egoitza, Harizpe elkarteak...
- Udala giza baliabideen zein baliabide materialen hornitzaile gisa.

#### ▼ Besterik?

Adinekoek nahiz gazteek ekarpen handia egin dezakete.

Gazteen garapen pertsonalerako lagungarri izan daiteke. Gazteei kezka sortzen die etorkizunak eta munduaren egoerak. Ekarpenak egitea eta entzunak izatea gustatzen zaie.

Erretiratuarekin boluntariotza eraginkorra aukeratu behar litzateke: haien gaitasunak eta ezagutzak baliatzea egin beharreko lanerako.

Aitortu egin behar da boluntarioen lana, ez dira esku-lan merkea. Aitorpenik jasotzen ez badute, ez dira itzuliko.

*Gomendio hau I gomendioarekin dago lotuta.*

## C.2

## Gomendioari erantzuna

### PROPOSAMENA BETETZEKO KONPROMISO-MAILA



### KONPROMISOA HARTZEN DA

**Udalak modu orokorrean babesten du gomendioa eta herritar oro boluntariotzaren mundura gerturatzeko pizgarrien identifikazioa eta lanketa modu parte hartzailean burutzeaz gain, Tolosako Boluntariotza Azoka antolatuko du.**

#### ▼ Tolosako Udalak gomendioarekiko bisioa

Tolosak ibilbide zabala eta ezaguna du boluntariotzaren eremuan, eta bere gizartearen lankidetzaz gaitasuna eta kapital sozial handia ditu ezaugarri.

Asko eta asko dira boluntario gisa Tolosako bizitzako esparru anitzetan jarduten duten tolosarrak. Izan ere, boluntariotzak onura sozialaz gain, onura pertsonala ere eragiten du eta integratzaileak aukera eskaintzen du.

Aldiz, boluntariotza ulertu eta bizitzeko moduak ere aldatzen doaz. Denborak aurrera egin ahala, bada aldaketa hauen aurrean kezka azaltzen duenik, eta hainbat herri-elkarte eta eragile sozialen jarraikortasuna bera arriskuan ikusten duenik.

#### ▼ Zer egingo du Tolosako Udalak?

Herri ekimen asko, ekintza komunitario desberdinak, Tolosako herriak duen kapital sozialari esker aurrera ateratzen dira eta horregatik herritarren inplikazioa, boluntariotza, sustatu eta babestu beharrean gaude.

Helburu horrekin Tolosako Udalak honako ekintza sortak bideratuko ditu:

#### C.1- Boluntariotza sustatzeko pizgarriak identifikatu eta indarrean jarri

Tolosako Udala eta herri eragileen arteko elkarlanaren bidetik herritar oro boluntariotzaren mundura gerturatzeko pizgarri sorta desberdinak identifikatu eta horiek eskaini ahal izateko formulak aztertuko dira.

Gomendioak erabateko lotura du D, I eta J gomendioekin.

#### C.2- Lehen Boluntariotza Azoka Antolatu

Herri mailako Boluntariotza Azoka antolatuko da, elkartegintzaren aberasteasuna ikustarazteko, elkarteak elkar ezagutu eta elkar errekonoitzeko eta elkarlanerako aukera berriak erraztu eta sustatzeko.

#### ▼ Inplikaturako sailak

Zeharkako gaia izanagatik, Udaletxeko Herritarrak, Antolaketa eta Lurraldea arloko sail desberdinak bereziki inplikatzeko dituen gomendioa da.

#### ▼ Aurrekontua

C.1- 10.000 € Boluntariotza sustatzeko pizgarrien lanketa.

C.2- 15.000 € Herri mailako I. boluntariotza azoka.

#### ▼ Epeak

C.1- 2024-25 Pizgarriak identifikatzen elkarlanean.

C.2- 2026-27 I. Boluntariotza azoka.



# Ongizate emozionalerako laborategi esperimentalak (Labe-baratze kolektiboa)

## D.1 Batzarkideen gomendioa

HITZ  
GAKOAK  
▼  
Esperientzia  
Esperimentalak

### ▼ Justifikazioa

Ez dago espaziorik libre parte hartu, ideiak aurrez aurre jarri eta eztabaidatzeko.  
Elkartu, ideiak aurrez aurre jarri, adierazi, ezagutzak trukatu eta ondorioak ateratzeko aukera izateko, eta bide horretatik, amaieran, «errezetak» banatzeko.

### ▼ Deskribapena

Leku esperimental bat sortzea, esperientziak bizitzeko. Eta ezaugarri hauek izan behar ditu:  
- Jarraitua.  
- Herritarrentzako irekia.  
- Esperientzia pilotuak-praktikoak abian jartzeko.  
- Diziplinartekoa.

Osasun emozional kolektiboa hobetzeko ideia berriak sortzea da helburua.  
Herritarrek dituzten errealitateen artean loturak, koordinazioa eta dinamizazioa eskaintzea, edo falta direnak sortzea.  
Horretarako, espezialista, ikertzaile eta abarren laguntza izango genuke.

### ▼ Nori zuzenduta dago?

Herritarrei oro har; bai norbanakoei, bai kolektiboei.

### ▼ Inplikaturako eragileak

Eragileak, herritarren elkarteak eta askotariko kolektiboak; bai aktibatuta daudenak, bai aktibatu gabe daudenak.  
Ideiak emateko prest dauden herritarrak.

### ▼ Besterik?

Adimena, sentsibiltatea, ikusmena irekitzea eta maitasuna behar dira hobekuntza kolektiborako.

## D.2 Gomendioari erantzuna

PROPOSAMENA  
BETETZEKO  
KONPROMISO-  
MAILA  
▼

EZ DA  
KONPROMISORIK  
HARTZEN

Udalak gomendioaren azken helburua ontzat ematen badu ere, egungo baldintzak tarteko ezin du aurrera eraman. Izan ere, Tolosak ez du ekintza komunitarioaren bidetik herri erronkei modu kolektiboan eta sortzailean heltzeko erreferentziazko azpiegitura egonkor eta antolaturik. Aldiz, gogoeta prozesua zabalduko du gomendioaren inguruan eta gogoeta horretan herritarrak eta herri, eskualde eta lurralde mailako eragileak parte hartzera gonbidatuko ditu.

### ► Tolosako Udalak gomendioarekiko bisioa

### ▼ Zer egingo du Tolosako Udalak?

#### D.1- Gogoeta prozesua

Ezer egitekotan, honako galderei erantzun beharko litzaieke lehenik:  
- Nola antolatuko gara barnean, kanpokoekin ahalik eta erlazionalenak izateko?  
- Udaletxeko zein arlo arduratu beharko litzateke ekintza komunitarioa bultzatzeaz? Non kokatzen da politika publiko hori? Zein zerbitzutan?  
- Zer baliabide dira estrategikoak ekintza komunitarioa aurrera eramateko?  
- Zer paper edo funtzio joka dezakete herri, eskualde eta lurralde mailako elkarte eta erakunde desberdinek?

Izan ere, Tolosatzen Eskola Irekiaren bitartez aurrera eman daitezken ekintza esperimentalak puntualak dira eta ez dute bere horretan adierazitako erronka edo kezken aurrean erantzun jarraitua bermatzen, eta ondorioz, behar den inpaktu soziala ahalbidetzen.

Tolosak ez du herritarrekin parte hartze prozesuak burutzeko eta ekintza komunitarioen sustapenerako ekipamendu komunitario egokirik. Ezta ere elkargune izateko, elkarlanean jarduteko, elkar-ezagutu, esperimentatzeko edota elkarrekin sortzeko gune disziplinartekorik, ireki eta anitz aproposik; ez behintzat aproposa denik.

Herri eragile anitzek modu kolektiboan proiektuak eraikitzeko, lankidetzan aritzea ahalbidetuko duen metodologia bat garatzeko eta hain beharrezkoa den hurbiltasun erlazionala, elkar ezagutza eta errekonozimendua erreztuko duen espaziorik ez badago eta horri aurre egingo lioken udal administrazio prestatu bat ez badago, oso zaila da arazo sozialei erantzun kolektiboak emateko proiektuak baldintza egokietan burutzea edo ekintzaren hartzaileak izango diren inplikazio aktiboa lortzea.

### ▼ Inplikaturako sailak

Zeharkako gaia izanagatik, Udaletxeko sail desberdinak inplikatzen dituen gomendioa da.

Eskualde mailako eta lurralde mailako erreferentziazko erakundeen parte hartzea eskatzen du gogoeta prozesuari dagokionez.

### ► Aurrekontua

### ▼ Epeak

2024 D.1- Gogoeta prozesua.

Informazio puntua,  
herritarrek dituzten beharrak  
herriko zerbitzuekin asetzeko

E.2

Gomendioari erantzuna

E.1

Batzarkideen gomendioa

HITZ  
GAKOAK



Informazio gunea  
Herritarren sarea  
Komunitatea  
Lankidetz  
Bideratzea

Justifikazioa

Informazio guztia informazio gune bakarrean biltzeko, hala informazio faltarik eta gaininformazioarik ez izateko, lehendik dauden baliabideak hobetuz eta herritarren arteko harremanak indartuz eta hobetuz: belaunaldien artekoak, kulturartekoak...

Deskribapena

Informazio-bulego bat sortzea, eta bertaratzen denari entzutea, goxo hartzea, eta handik elkarte, zerbitzu eta abarretara bideratzea. Webgunea ere izango luke (aurrerago azalduko dugu xeheago), eta arreta eskaintzeko telefono bat ere bai.

Mahai bat, bertan bil daitezen udal sailetako ordezkariak (gizarte zerbitzuak, gobernantza, kirolak, berdintasuna, .....eta udalak beharrezkotzat jotzen dituen besteak), Tolosako elkarte guztietakoak, aisialdi-talde eta guraso-elkarteetako ordezkariak, hezitzaileak, Osakidetzakoak (anbulatorioa), elkarren berri izateko, informazioa partekatzeko, elkarlanean aritzeko eta zer behar dagoen detektatzeko.

Nori zuzenduta dago?

- Herritarrei, oro har.
- Arlo batean edo bestean elkarlanean aritzeko prest daudenei.
  - Mota bateko edo besteko beharrak dituztenei.
  - Askotariko adin, genero, kultura, egoera ekonomiko eta abarreko jendeari.

Inplikaturako eragileak

Udal sailak, gizarte-hezitzaileak, irakasleak, psikologoak, mota guztietako elkarteak, jabetze-eskola, ambulatorioiko langileak...

Besterik?

Webguneak erabilerraza izan behar luke, bisuala. Interesgarria litzateke norbait webgunera sartzen denean, bila dabilen horretara zuzenean sartu ahal izatea, bilaketa hitzen bidez eginda. Adibidez, zure aldartea identifikatzen duen hitz bat-batzuk aukera ditzakezu; esaterako, «lagundu egin nahi dut», «triste nago», «zerbait egin nahi dut, baina ez dakit zer», «denbora libre asko daukat», «nire ezagutzak partekatu nahi ditut», «bakarrik sentitzen naiz», «ez nauela inork ulertzen iruditzen zait», «indarrik gabe sentitzen naiz»...

Webguneaz gain, argi-panelak erabil daitezke abian dauden baliabideei buruzko informazioa emateko: ikastaroak, emakumeen etxea eta abar.

Informazioak adin guztietako jendearengana iritsi behar du.

Hortik abiatuta, telefono zenbaki, elkarte edo jarduera jakin batera bideratuko litzateke, edo bestela, zuzenean, bulegora, arreta pertsonalizatua jasotzeko.

Donostiako Erlauntza esperientzia eredu gisa har daiteke.

Gomendio hau B gomendioarekin dago lotuta.

PROPOSAMENA  
BETETZEKO  
KONPROMISO-  
MAILA



KONPROMISOA  
HARTZEN DA  
ALDAKETEKIN

Udalak gomendioaren azken helburua ontzat ematen du, baina aldaketekin erantzuteko konpromisoa adierazten du. Honela, UDATE- Herritarren Arreta Zerbitzuaren baitan lehen mailako informazioa herritarren esku jartzeko asmoz lanean jarraituko du eta osasun eta ongizate emozionalareni buruzko herri mailako zerbitzu, baliabide eta egitasmo desberdinak jasotzen dituzten informazio-euskarri egokiak sortzen eta ikusgarritasuna ematen, indar berezia jarriko du.

Tolosako Udalak gomendioarekiko bisioa

UDATE-Herritarren Arreta Zerbitzua, herritarren informaziorako eta tramite administratibo desberdinak burutzeko erreferentziazko udal zerbitzua da. Bertan, udal zerbitzuei buruzko informazioa era integralean eskaintzen ditu, aurrez-aurre, telefonoz, telematikoki, posta elektronikoz, posta arruntaz, nahiz sare sozialen bidez.

Era berean, udaletik kanpoko hainbat erakunde, elkarte, agentzia, mankomunitate, administrazio publiko eta abarrei buruzko informazioa

eskaintzea ere du helburu.

Baina udalaren nahiak eta bisioak askotan egiten du talka errealitatearekin. Lege desberdinek eskatzen duten izapidetza baldintzak eta teknologia berrien inguruko arrakala desberdinak askotan oztopo dira herritarrein arreta zerbitzu osoa eta egokia eskaintzerako orduan. Eta horrek guztiak herritarren haserre era-giteaz gain, Udalari buruzko iritzi negatiboa eragiten du.

Zer egingo du Tolosako Udalak?

E.1- Euskarri desberdinak sortzea

Udalak, informazioa eskaintzeko bide/formatu berriak garatuko ditu eta horien baitan osasun eta ongizate emozionalareni buruzko herri mailako zerbitzu, baliabide eta egitasmo desberdinak jasotzen dituzten informazio-euskarri egokiak sortu eta irisgarritasuna bermatuko du.

Honako euskarri desberdinak sortuko dira:

Infografiak: Infografien erabilera, ez informazioari buruzkoa soilik, informazio horretara nola iritsi azaltzeko ere.

Animazio bideoak: Udalak, informazioa modu dinamikoagoan, bisualagoan bideratzen ahaleginduko da.

Gomendioak lotura du C, D eta G gomendioekin.

Informazio kanpainak: Guzti honi ikusgarritasuna emateko informazio kanpainak martxan jarri behar ditu Web-ean, sare-sozialetan, udal-pantailetan, hurbileko komunikabideetan, besteak beste.

Informazioa birmoldatzeko baliabideak: Jasotzen den informazioa herritarri helarazteko.

Informazio guneetako mapa: Bulegoen zerrenda, hauen zeregina, kokapena, harremanetarako bideak jasoko dituenak.

Web orri berria diseinatzea: Herritarra ardatz izanik diseinatu beharko da, dituen beharretara irisgarriagoa.

Informazioaren eguneraketa etengabea.

Inplikaturako sailak

Sail guztien inplikazioa ezinbestekoa da.

Aurrekontua

E.1- Diseinua (edukia, erabilgarritasuna eta grafismoak) eta espezifikazio teknikoak sortu (WEB eta APP) : 15.000€

Epeak

2024-25 Diseinua (edukia, erabilgarritasuna eta grafismoak) eta espezifikazio teknikoak sortu (WEB eta APP)



## Etxegazte

F.1

Batzarkideen gomendioa

HITZ GAKOAK



Alokairu soziala  
Jabetza pribatua

Justifikazioa

- Etxebizitza-behar handia dago Tolosan, eta gazte askori zail egiten zaio gurasoen etxetik ateratzea.

- Konstituzioak eta EAEk aitortutako oinarritzko eskubidea da etxebizitzarena.

- Komunitatea sendotzeko aukera ematen du.

- Etorkizunera begira egonkortasuna izateak eta gurasoen etxea uzteko aukera izateak hobetu egiten du gazteen ongizate emozionala.
- Bestalde, gazteen lasaitasuna eta ongizatea handitzeak aukera ekar diezaike guraso lehenago izateko, eta hala, dugun arazo demografiakoari erantzun.

- Aukera ematen du erabilerarik ez duten lur-sailak erabiltzeko (gazte askok bizi baldintza ezegonkorrak dituzte).

- Etxebizitza asko (baja egokiak) hutsik eta erabili gabe daude. Irtenbidea aurkitu ahal izango zaie.

Deskribapena

Bi ataletan bereiziko dugu deskribapena. Batetik, jabe pribatua duten etxebizitza hutsei erabilera ematea, eta bestetik, etxebizitza publiko eraikigarriak nolakoak izan daitezkeen deskribatzea.

ETXEBIZITZA HUTSAK

Etxebizitza hutsen jabeei etxe huts horiek alokatzen laguntzea (askok berrikuntzak behar dituzte, eta jabeei ez zaiei interesatzen gero alokatzeko berritzea). Modu batean baino gehiagotan lagun dakieke etxebizitza alokairuan jartzen:

- Diagnostiko egoki bat egin behar litzateke Tolosan hutsik dauden etxeak identifikatzeko, haien ezaugarriak aztertzeko, eta horren arabera, errenta egokia finkatzeko.

- Berrikuntzak egiteko laguntzak jasota, Udalak finkatutako errentarekin jarri beharko lirateke gero alokagai.

- Etxe handiak bi etxebizitzatan zatitzeko aukera eskaintzea.

- Hutsik dauden merkataritza-lokalak eta haien etxebizitza bihurtzeko aukera aztertzea, betiere, tokiko saltokiei kalterik ez egitea bermatuta.

Nori zuzenduta dago?

Hasiera baten gazteei (35 urtetik behe-rakoei), baina etxebizitza duina aurkitzeko zailtasunak dituzten guztiei zabal dakieke.

Besterik?

- New Yorkeko etxebizitza-eredu batean oinarrituta dago alokairu soziala.

- Gai konplexua iruditzen zaigu, eta ekonomiari eta legeei buruzko informazioa falta zaigu. Hala ere, beharrezkoa iruditzen zaigu mota honetako proiektu bat, etxebizitza-eredua aldatu ahal izateko.

2 ALOKAIRU SOZIALA

- Tolosan dauden espazioak baliatzea etxebizitza berriak eraikitzeko eta haien alokairu sozialan jartzeko.

- Etxebizitza horiek askotariko beharrei erantzuteko prest egon behar dute (bakarrik, bikotean, familian, lagunekin... bizitzeko).

- Garatzeko bidean, kooperatiba-formula bat ezar daiteke, Udalak edo erakunde publikoek dena ordaindu beharrik ez izateko.

- Etxebizitza horiek espazio komunitarioak ere izango dituzte (adibidez, garbigailuak eta lehorgailuak leku publikoetan. Hala, komunitatea indartu, eta energia aurreztuko da).

- Etxe horiek ingurumen aldetik jasangarriak, eta energia aldetik eraginkorrak izango dira.

- Etxebizitzen artean espazio naturalak jarriko dira (umeentzako parkeak, helduentzako gimnasioak...).

- Inklusiboak izango dira erabat.

Inplikaturako eragileak

- Udala.

- Ogasuna.

- Etxebizitza hutsen jabeak.

F.1

Gomendioari erantzuna

PROPOSAMENA BETETZEKO KONPROMISO-MAILA



KONPROMISOA HARTZEN DA

Udalak modu orokorrean babesten du gomendioa eta horretarako, orain arteko etxebizitza alorreko laguntza lerroetan sakontzeaz gain, etxebizitza eredu desberdinen identifikazioa, azterketa eta Tolosako behar eta errealitatera hobekien egokitu daitezkeen ereduak lantzeko ikerketa prozesua martxan jarriko du.

Tolosako Udalak gomendioarekiko bisioa

Gazteentzako etxebizitza beharra nabarmena da. Besteak beste, lanaren prekarietate eta etxebizitzaren prezioengatik “eskaera-eredua” alokairura aldatzen ari da. Baina konponbide zaileko arazoan aurrean gaude: Administrazioak alokairuko etxebizitzak eraikitzeko duen zailtasuna eta etxebizitza hutsen jabeek alokairuaren merkatuan sartzeko duten erresistentzia.

Horren aurrean Tolosako Udalak honakoa egin du:

1- “Tolosako etxebizitza hutsen diagnostikoa eta

herritarren etxebizitza-premia, genero ikuspegia kontuan hartuta eta Udalaren jarduera-ildoen definizioa etxebizitza horiek merkaturatzeko” ikerketa burutu zuen 2020 urtean.

2- Etxebizitza hutsak eraberritzeko diru-laguntzak martxan jarri.

3- Alokairu soziala bultzatzeko diru-laguntza deialdiak zabaldu.

4- Alokairu ordainketa laguntzeko diru-laguntzak eman.

Zer egingo du Tolosako Udalak?

F.1- Etxebizitza hutsak

2021eko ekainean 8an argitaratu zen Euskal Autonomi Erkidegoko jenderik gabeko etxebizitzei eta etxebizitzaren funtzio soziala betetzeko neurriei buruzko 149/2021 Dekretua.

Tolosako Udala Dekretuan jasotakoa betetzeko ahalegina egingo du eta horrek suposatzen duen zailtasuna eta lan-karga arintzeko Eusko Jaurlaritzari eskatuko dio:

1.- Etxe hutsen dekretua aplikatzen laguntzeko baliabide ekonomiko bereziak jar ditzala, horien beharra duten udalen esku.

2.- Etxe hutsen dekretua aplikatzen laguntzeko baliabide tekniko bereziak (lege-aholkularitza, hornidura-enpresen kontsumo-datuak lortzeko laguntza...) udalaren esku jar ditzala lankidetzaz-hitzarmen baten bidez.

Era beren, Tolosako Udalak jarraipen zuzena egingo die dekretua garatzeko Eusko Jaurlaritzatik emango dituen xedapenei.

F.2- Alokairu soziala

Alokairuen prezioa mugatzeko bere esku dauden neurriak hartuko ditu.

Inplikaturako sailak

Etxebizitza, Hirigintza, Gizarte Zerbitzuak, Gazteria, Berdintasuna eta Komunitatea eta Gobernantza.

Aurrekontua

15.000 € F.3- Etxebizitza eredu berrien azterketa.

Alokairu sozialeko etxebizitza eskaintza handitze-ko konpromisoa hartzen du, bai etxebizitza hutsak merkaturatzeko aurreko puntuan aipatutako Dekretua aplikatuz eta bai etxebizitza sozialak (ekimen desberdinak abiatuta, etxebizitza kooperatiboak...) eraikitzeko konpromisoa hartuz. Promozio berrietan babeseko etxebizitza guztiak alokairura bideratu dira eta legeak baimentzen duen maximoetara jotzeko konpromisoa hartzen du.

Halaber, aztertu beharko litzateke Euskal Herria plazan udalak gazteei eskeintzen dizkien 25 zuzkidura bizitokien ereduak zabaltea.

F.3- Etxebizitza eredu berrien inguruko gogoeta.

Tolosako udalak, kanpo laguntzarekin eta herritar eta herri eragileekin batera, etxebizitza eredu desberdinen identifikazioa, azterketa eta Tolosako behar eta errealitatera hobekien egokitu daitezkeen ereduak lantzeko gogoeta prozesua martxan jarriko du.

Horretarako kontuan hartuko dira beste autonomi erkidegoetako eta Europa mailako eredu eta neurri berritzaileenak.

Epeak

2024-25 F.3- Etxebizitza eredu berrien azterketa.

# Arrakala digitala gainditzea

G.2

Gomendioari erantzuna

G.1

Batzarkideen gomendioa

HITZ  
GAKOAK



Tutoretza  
Boluntariotza  
garaikidea  
Bitartekaria

▼ Justifikazioa

Askok, batez ere adin batetik gorakoek, zailtasunak dituzte teknologiak erabiltzea eskatzen duten eguneroko kudeaketa-lan batzuk egiteko (garraio-txartela eskuratzea, banku-zerbitzuak, udal-zerbitzuak...). Zerbitzu pertsonalizatua eskaini nahi diegu, eta adierazi badutela eskubidea eta zerbitzu horiek hor daudela.

▼ Deskribapena

- 1- Pantaila interaktiboak jartzea (oso erabilerrazak) mezu argiekin, eta hor adieraztea Tolosan zer zerbitzu eta jarduera eskaintzen diren (bai Udalak sustatutakoak, bai gizarte-eragileek sustatutakoak) (argi-panelen antzekoak, baina pantailan).
- 2- Zerbitzuak ezagutarazi ondoren, zerbitzu horietan, erreferentzia pertsonal bat behar da, harengana jotzeko:
  - hark, zuzenean izapidea egiteko laguntza eskaini edo berak kudeatuko du izapidetzea;
  - bestela, behar/nahi den gunera bideratuko du.
- 3- Gailu berri guztiak, diseinatze-fasean daudenean, gailu digitalak erabiltzeko zailtasunak dituzten adinekoekin probatzea.

▼ Nori zuzenduta dago?

- Zailtasunak edo kezkak dituzten adinekoek.
- Arrakala digitala jasaten duen beste edonori.

▼ Inplikaturako eragileak

- Udala.
- KZ Gunea.
- Udal-liburutegia.
- Adinekoen elkarteak.

► Besterik?

PROPOSAMENA  
BETETZEKO  
KONPROMISO-  
MAILA



KONPROMISOA  
HARTZEN DA

Udalak modu orokorrean babesten du gomendioa eta horretarako teknologia komunitarioaren ideia ardatz hartuta, baliabide eta zerbitzuen identifikazioa egingo du eta horiekin elkarlanean informazio-euskarriak garatu eta egitasmo desberdinak martxan jarriko ditu.

▼ Tolosako Udalak gomendioarekiko bisioa

Arrakala digitalari aurre egiteko garrantzitsua da arrakala digitala eta honek barne hartzen dituen mota ezberdinak ulertzea. Arrakala digitalak gizarte-taldeen arteko eremu digitalarekiko sarbide-, erabilera- edo inpak-tu-desberdintasunak adierazten ditu. Talde horiek irizpide ekonomiko, geografiko, genero, adin edo kulturalen arabera zehazten dira normalean.

Arrakala motak:

- Sarbiderako arrakala. Pertsonak baliabide hori eskuratzeko dituzten aukerei dagokie.
- Erabilera-arrakala. Teknologia erabiltzea gala-razten duen gaitasun digitalik eza da.
- Erabilera-kalitatearen arrakala. Batzuetan, gaitasun digitalak izaten dira, baina ez sarea ongi erabiltzeko eta ahalik eta etekin handiena ateratzeko ezagutzak.

*(\*Arrakala motak ezin dira modu isolatu batean ulertu, denak daude elkarrekin erlazionatuta eta pertsona edo kolektibo bakoitzak arrakala bat baino gehiago sufritu dezake, era oso ezberdinetan).*

▼ Zer egingo du Tolosako Udalak?

**G.1- Erreferentziako zerbitzuak eta gaitasun digitalak garatzeko egitasmoak**

- Lehenik eta behin, Tolosan trebakuntza digi-talera bideratutako baliabide publikoak eta elkarteak identifikatu eta ezagutaraztea.
- Bigarrenik, identifikazio lana burututa eta inplikaturako eragileekin elkarlanean, gaitasun digitalak eskuratzen eta hobetzen laguntzeko egitasmoak martxan jarriko ditu.
- Identifikaturako baliabide eta zerbitzuei buruzko informazioa eta egitasmo desber-dinei buruzko eskaintza UDATE-Herritarren Arreta Zerbitzuaren bitartez eta udalaren komunikazio-euskarri desberdinen bitartez eskainiko da *(Puntu honek lotura berezia du E gomendioarekin).*

**G.2- Gailu berri guztiak probatzea diseinu-fasean**

Ekimen digitalak diseinatzean, zerbitzu, parte-hartze prozesu edo proiektu forma izan dezaketenak, ezinbestekoa da pertsonak (erabiltzaile, hornitzaile, erakundeetako langile, eragileak, etab.) zentroan jarri eta beraien be-harretara doitutako proposamenak garatzea. Gure ardura da arrakala digitala ekiditeko ekintzak gauzatzea ekimen digital irisgarriak eta inklusiboak eskaintzeko.

Bide honetan, ezinbestekoa da lan egiteko modua aldatzea, pertsonetan zentratutako di-seinu prozesuak barneratzea eta proiektuaren testuinguruan parte hartzen duten eragile eta faktore desberdinak kontuan izatea.

▼ Inplikaturako sailak

Idazkaritza, Komunitate eta Gobernantza, Gazteria, Informatika, IKT, Udate, KZGunea, Liburutegia.

▼ Aurrekontua

15.000 € aholkularitza zerbitzua kontratatzeko.

▼ Epeak

2024 Aholkularitza zerbitzuaren kontratazioa.



# Nerabeak, LGTBIQ+, suizidioa: arreta programa, prestakuntza eta esku-hartzea

## H.1 Batzarkideen gomendioa

HITZ GAKOAK

Tutoretza

Boluntariotza garaikidea

Bitartekaria

### Justifikazioa

Tolosako ikastetxe batean erantzun duten galdetegi baten arabera, LGTBIQ+ eta suizidioa dira gazteak gehien kezkatzen dituzten gaiak. Hori horrela, Nature aldizkarian argitaratutako informazioaren arabera, suizidioaren intzidentzia handiagoa da LGTBIQ+-nerabe-gazteen artean (bereziki) (Greater suicide in LGBT youth – Nature Human Behaviour 2,886 (2018)). Garrantzitsua iruditzen zaigu ikusten ez den errealitate hau haurtzarotik lantzea, suizidioa prebenitzeko.

### Deskribapena

Programa honek hiru ardatz izan behar lituzkeela uste dugu:

- 1\_ Heziketa: ikastetxeetan lana haurtzarotik normalizatzeko, suizidioen 1., 2. eta 3. mailako prebentzioa landuz; gurasoentzako tailerrak; irakasleak heztea eta tresnak ematea; heziketa eta hezikidetzak.
- 2\_ Laguntza prozesuan: Psikologoak, psikiatrak, profesionalak.
- 3\_ Sentsibilizazioa: udalerrian LGTBIQ+ kolektiboaren errealitatea bistaratzeko ekintzak antolatzea.

### Nori zuzenduta dago?

Errealitate hau bizi dutenei espezifikoki: LGTBIQ+ kolektiboari, haien familiei eta herritarrei, oro har.

### Inplikaturako eragileak

- Udala.
- Ikastetxeak.
- Suizidioan aditu diren profesionalak.
- Adituen elkarteak.
- Beste elkarte batzuk: kirol, kultura eta beste arlo batzuetakoak.
- Familiak.
- Herritarrek, oro har.

### Besterik?

- Gomendio hau landu diren proposamen hauekin dago lotuta:
- Udalerriko eragileei eta zerbitzuei buruzko informazioa bilduko duen webgunea
  - Informazio hori bildu eta bideratuko duen bulegoa.
  - Arkitektura inklusiboarekin.
  - Gomendio hau beste batzuegana (adina) iristeko lehen urrats gisa.

## H.2

## Gomendioari erantzuna

### PROPOSAMENA BETETZEKO KONPROMISO-MAILA



### KONPROMISOA HARTZEN DA

Udalak modu orokorrean babesten du gomendioa eta horretarako, prebentzioa, sentsibilizazioa, formakuntza, babeserako zerbitzu eta erreparazioaren jardun-eremuetatik erantzutetz gain, suizidioa prebenitzeko Tolosako I. Gida landuko da elkarlanean.

### Tolosako Udalak gomendioarekiko bisioa

Suizidioak pertsona edo adintalde orori eragiten dio eta bere atzean ez du kausa bakarra. Suizidioaren problematikan hainbat faktore elkartzen dira, eta beharrezkoa da horiek ezagutzea.

Era berean, nerabeen heriotza-arrazoi nagusietako bat da eta eskola jazarpenaren testuinguruan ematen den bullying edo eskola jazarpenean du jatorri nagusi, bereziki eragiten dielarik nerabeei eta talde kalteberei, hala nola, LGTBI kolektiboko kideei.

LGTBQ+ gazteen problematika sexo-genero gizarte patriarkalaren ondorioa da, eredu normatiboa ez dutelako jarraitzen. Eta sarritan indarkeria ma-

txista desberdinak jasaten dituzte. Suizidioaren kausa bat izan daiteke.

Era berean, azken urteetan ideia suizidak adierazten dituzten ikasleak ugaritu egin dira, eta ikastetxe askok laguntza, aholkularitza eta prestakuntza eskatzeaz gain, ekimen desberdinak abian jarri dituzte. Hala nola, Tolosako Inmakulada Lanbide Ikastolak.

Bestetik, Tolosako Udaletxeak helduenei, zein gazteei zuzendutako ezagutza-formakuntza, sentsibilizazio, prebentzio eta erantzunerako baliabide desberdinak baditu ere, lan-lerro horien baitan etenik gabe lanean jarraitu beharra du.

### Zer egingo du Tolosako Udalak?

Erakunde, herri eragile eta herritarrekin elkarlanean, eta bereziki K gomendioaren baitan eratzea aurreikusten den Nerabeen Parte Hartze Foroko kideekin elkarlanean, honako lan esparru eta baliabideen baitan lanean jarraitzeko konpromezua adierazten du Tolosako Udalak:

**H.1- Ezagutza-formakuntza, sentsibilitzazioa, prebentzioa:** Helduei eta gazteei zuzendutako lan lerro espezifikoen bidez formakuntza eskeintzen jarraituko da.

**H.2- Identifikatzea eta deribatzea.** Orain arte bezala, detekzio, identifikazioa lanean jardungo dute eragile desberdinek eta kasu bakoitzaren ezaugarri berezien arabera dagokion zerbitzura bideratuko dira pertsonak.

**H.3- Erreparazioa.** Oso lotuta dago sentsibilizazio jarduera publikoekin. Errekonozimendu soziala eta ikusgarritasuna ahalbidetzea ditu helburu.

**H.4- Formakuntza.** Gai nahiko ezezaguna eta delikatua denez, bai Udalaren barruan, bai gizartean, oinarrizko prestakuntza eskainiko da.

Hartzaileak izan daitezke: udaleko eta eskualdeko langileak, Hezkuntzako, Hezikidetzako, Prebentzio komunitarioko, Indarkeriaren aurkako Protokolo-loko mahaietako kideak, hezitzaileak eta interesa izan dezaken herritarra izan daiteke.

**H.5- Programazio berria.** Formakuntzan ikasitakoak kontutan hartuz, Udalak gazteei eta helduei zuzenduriko egitasmo eta jarduera desberdinen baitan txertatzea.

**H.6- Suizidioa prebenitzeko Protokoloa edo Gida.** Informatzeko, prebenitzeko eta bideratzeko protokolo edo gida bat landu eta adostea.

Gomendioak lotura du K gomendioarekin.

### Inplikaturako sailak

Gazteria, Gizarte Zerbitzuak, Komunitate eta Gobernantza, Kirola, Berdintasuna.

### Aurrekontua

H.4- Formakuntza 5.000 €.

H.6- Suizidioa prebenitzeko Tolosako I. Gida 15.000 €.

### Epeak

2024 H.4- Formakuntza.

2024-25 H.5- Programazio berri egokitua.

2025-26 H.6- Suizidioa prebenitzeko Tolosako I. Gida.

# Boluntariotza garaikidearen esperimentazioa elkarreetan: tutoretza, bitartekaritza, lagun egiteko zerbitzua Tolosara iristen direnei

I.1

Batzarkideen gomendioa

HITZ  
GAKOAK



Tutoretza  
Boluntariotza  
garaikidea  
Bitartekaria

Justifikazioa

Migrazio prozesu bati ekiten dion orok behar du lagun egingo dion norbait, hartu duen herrialdeko sistema ezagutzeko (kultura, ohiturak, hezkuntza-sistema eta abar ezagutzeko). Boluntariotza horren beharra sentitzen da batetik, eta bestetik, badirudi agortzen ari dela. Gure bizimodua, denbora-falta eta abar direla-eta, eredu hau desagertzen ari da. Beraz, funtzio hau diruz ordaindu behar dela da pertzepzioa.

Izan daiteke gazteak lan-munduratzeko hasteko modu bat; migratzaileen kolektiboetako kide diren gazte euskaldunentzat, lan-munduratzeko sistema bat izan daiteke.

Erakundea burokraziaz arduratzen den arren, gaur egungo administrazioaren kulturean, administrazioak ez du baliabiderik lagun egiteko dinamiko bat eskaintzeko. Hala ere, erakundeek baliabideak jarri behar dituzte gizarteak behar dituen zerbitzuak antolatzeko. Azken helburua gizarteratzea litzateke.

Deskribapena

Esperimentu bat egitea proposatzen dugu zenbait eragile sozialekin: Zu ta ni elkarte, Saha-ra elkarte, Jatorkin Al-Nahda eta migratzaileen kolektiboekin lanean aritzen direnekin, eta hala, tutoretza eskaini eta lagun egiteko zerbitzua itxura eman nahi diogu:

- Gizarte-zientzietan prestakuntza jasotzen ari diren edo jaso duten gazteak, diruz ordaindu-tako lan baten bidez.
- Jada euskaldunduta dauden migratzaileen kolektiboetako kideei prestakuntza ematea lehen harreman horretan lagun egiteko, gizarteratzen laguntzeko, eta horren truke ordainduta.

Nori zuzenduta dago?

Iritsi berriak diren migratzaileei edo behar bezala gizarteratu ez diren atzeritarrei.

Bigarrenik, bertako gazteei eta familia migratzaileetakoei lan mundurako atea zabaltzeari dago zuzenduta.

Inplikaturako eragileak

- Udala: Migratzaileekin lan egiten duten elkarteei laguntza eta erraztasunak emateko baliabideak eta formula administratiboak.
- Elkarrekin: Zu ta ni, Jatorkin, al-Nahda, Sahara elkarte... Ideiak partekatzea, eta proiektu esperimentala koordinatu eta partekatzea.
- Migratzaileen kolektiboak: Antolatuta badaude, haien inplikazioari bide ematea.

Besterik?

Boluntarioen izaera eraldatzeko beharra. Boluntario izateko prest dagoenari erraztasunak eman behar zaizkio, bideak zabalduz. Baina boluntario-falta dugunez, beharrezkoa iruditzen zaigu eraldatze bat proposatzea.

I.2

Gomendioari erantzuna

PROPOSAMENA  
BETETZEKO  
KONPROMISO-  
MAILA



KONPROMISOA  
HARTZEN DA  
ALDAKETEKIN

Udalak modu orokorrean babesten du gomendioa eta herritar oro boluntariotzaren mundura gerturatzeko pizgarrien identifikazioa eta lanketa modu parte hartzailean burutzeaz gain, Tolosako Boluntariotza Azoka antolatuko du. Pizgarrien lanketa partekatuari dagokionez, gazteen beharrei egokitutako pizgarrien identifikazioaz gain, esperientzia piloto bat elkarlanean burutzeko aukera aztertze konpromisoa hartzen da.

Tolosako Udalak gomendioarekiko bisioa

Tolosak ibilbide zabala eta ezaguna du boluntariotzaren eremuan, eta bere gizartearen lankidetz gaitasuna eta kapital sozial handia ditu ezaugarri.

Asko eta asko dira boluntario gisa Tolosako bizitzako esparru anitzetan jarduten duten tolosarrak. Aldiz, boluntariotza ulertu eta bizitzeko moduak ere aldatzen doaz denborak aurrera egin ahala eta bada aldaketa hauen aurrean kezka azaltzen duenik ere hainbat herri elkarte eta eragile sozialen jarrai-kortasunaren inguruan garai bateko eredu eta egungoa ez datozelako bat.

Gazteenek aurrera begira joka dezaketen errola gakoa izan daiteke.

Zer egingo du Tolosako Udalak?

Boluntariotzaren sustapenerako baliagarriak diren eta egungo gizarteko kontestura egokitzen diren euskarri eta tresna sorta desberdinak sortu edota eskaini beharrean aurkitzen gara. Helburu horrekin honako ekintza sortak bideratuko ditu:

**I.1- Boluntariotza sustatzeko pizgarriak identifi-katu eta indarrean jarri.** Tolosako Udala eta herri eragileen arteko elkarlanean identifikatu eta ho-riek eskaini ahal izateko formulak aztertuko dira.

Gazteentzat boluntariotza aukera berriak eskaini asmoz eta era berean beraien bizitza eta lan mun-duko formakuntzarako baliogarria izan daitekee-lakoan, boluntario gisa bitartekaritza lanak edota akonpainamendu jarduerak burutu ditzakete.

Jardun hau ordaintzeko aukera aztertu beharko litzateke, kontuan hartuta komunitatearen alde

egiten den lana eta eskatzen zaien inplikazioa (Tolosako Herritarren Batzarreko kideekin egin bezala).

**I.2- Herri mailako Lehen Boluntariotza Azoka antolatu.** Herri mailako Boluntariotza Azoka antolatuko da, elkartegintzaren aberasteasuna ikusarazteko, elkarrekin elkar ezagutu eta elkar errekonozitzeko eta elkarlan aukera berriak erraz-tu eta sustatzeko.

**I.3 Esperientzia pilotua.** Pizgarri berriak oinarri-tzat hartuz, gazteen parte hartzea ardatz izango duen boluntariotzako esperientzia pilotu bat elkarlanean burutzeko aukera aztertze konpro-misoa hartzen da.

Gomendioak erabateko lotura du C, D eta J go-mendioekin.

Inplikaturako sailak

Herritarrak, Antolaketa eta Lurraldea arloko sailak.

Aurrekontua

- I.1- 10.000 € boluntariotza sustatzeko pizgarrien lanketa modu parte hartzailean burutzeko.
- I.2- 15.000 € herri mailako I. boluntariotza azoka-ren antolaketarako idazkaritza, koordinazio eta dinamizazio teknika kontratatze.
- I.3- 10.000 € esperientzia pilotorako.

Epeak

- I.1- 2024 Pizgarriak identifikatzen elkarlanean.
- I.2- 2025 I. Boluntariotza azoka.
- I.3- 2026 Gazteen parte hartzea ardatz izango duen boluntariotzako esperientzia pilotoa.



# Ontzi komunikatuak: Harremanak eta sareak sortzen dituzten ekimenak (adinik gabe)

J.1

Batzarkideen gomendioa

HITZ  
GAKOAK



Konektatzea  
Harremanak  
auzoa eta kalea  
partekatzea  
Sareak

Justifikazioa

Tolosako askotariko talde eta pertsonak konektatzea, eta haien arteko zementu izatea. Taldeen arteko zatiketa eta segmentazioa haustea.  
Kohesio soziala. Taldeen arteko harremana, gora, behera, ezkerrera eta eskuinera.  
Ezberdinek elkar ezagutzea eta partekatzea, trukeak egitea eta jarduera eskusiboak egitetik parte-hartzean oinarritutako jarduera egitera igarotzea.  
Nitik gura igarotzea.

Deskribapena

- Ekimen eta jarduera horien irizpideak:
  - Sinpletasuna, fantasia, sormena eta fresko-tasuna, gudan eragiten dutenak eta zenbait kolektibo biltzen dituztenak. Alderdi ludi-koaren garrantzia sustatzea.
  - Auzoetan, txikien, ertainen eta handien parte-hartzea indartzea; eta auzoen arteko harremana sustatzea. Konektatzea.
  - Kaleko jarduerak indartzea, eta barnekoak badira, jarduera horiek ikusgarri egitea. Elkartzeko eta harremanak izateko egin litezkeen ekintzak:
  - Baratze eta lorategi terapeutikoak, gozatze-ko eta harremanak sortzeko.
  - Animalia zein maskotekin harremanak: animaliekin harremana izateak ongizate emozionalean duen eragina.
  - Haurtzaindegiak zahar egoitzetan.
- Lokal sozialak Tolosako auzo guztietan, herritarren kudeaketa irekiarekin. Lidergo horizontalak.
  - Klub eta elkarteek elkarrekin egiteko proiektuak. Nire kluba izatetik GURERA pasatze-ko nahasketa bat.
  - Mota guztietako pertsona eta gaiei zabal-dutako kafe saioa (Gasteizko esperientzia).
  - Tolosako kultura-programazioa adinik zehaztu gabe, Tolosako pertsonak, kolekti-boak eta taldeak konektatzera irekiagoa.
  - Trebetasunen eta talentuen azoka: ofizioei balioa ematea eta didaktika interesdunent-zat: joskintza, zizelkatzea, elektrizitatea, sukaldaritza...
  - Kontakizunak Tolosako auzoetan: istorio, es-perientzia, historia eta abarren transmisioa.

Nori zuzenduta dago?

Herritar guztiei oro har, adina edozein dela ere. Jardueren helburua izango da aipatu dugun nahasketa hori lortzea eta pertsona nahiz kolektiboen arteko ontzi komunikatu gisa funtzionatzea.

Inplikaturako eragileak

Udalari eskatu diogu erraz ditzala jarduerak eta ekimenak: lokalak, azpiegiturak, ikusgarritasuna, informazioa ematea. Etorkizunean, honako hau ikusten dugu: komunitatea dinamizatzeke udal-enpresa.  
Herritarren eta elkarten indarra.

Besterik?

Elkarte gastronomikoen gomendioarekin lotuta (18/25).

J.2

Gomendioari erantzuna

PROPOSAMENA  
BETETZEKO  
KONPROMISO-  
MAILA



KONPROMISOA  
HARTZEN DA  
ALDAKETEKIN

Udalak gomendioaren azken helburua ontzat ematen du, baina aldaketekin erantzuteko konpromisoa adierazten du. Honela, egungo egitasmoen baitan egitasmo experimental puntua-lak sustatzen eta errazten ahaleginduko da. Eta dinamizazio komunitarioa lan ardatz izango duen udal zerbitzu baten beharraz eta egokitasunaz gogoeta prozesu ireki eta parte hartzailea zabalduko du.

Tolosako Udalak gomendioarekiko bisioa

Tolosatzen Eskola Irekiak, elkarlana eta lankidetzat oinarri hartuta, egitasmoak herritarrekin batera elkarrekin sortzeko, hausnartzeko eta aurrera eramateko helburua du.  
Aldiz, Tolosak ez du ekintza komunitarioaren bidetik herri erroneki modu kolektiboan eta sortzailean heltzeko erreferentzia azpiegitura egonkor eta antolatuturik eta ekintza puntualak haratagoko jardu-nak aurrera eramateko ahalmenik.

Zer egingo du Tolosako Udalak?

Gomendio honek erabateko lotura du D Gomendioarekin.

**J.1- Tolosatzen Eskola Irekia – Espeimentazio proiektuak.** Tolosatzen Eskola Irekiaren aterkipean eta eragileekin elkarlanean izaera experimentalak izan dezaketen egitasmoak definitu eta aurrera eraman ahalko dira.

Egitasmo hauen baitan ahalegin berezia egiten jarraituko da adin desberdinetako herritarren elkartoparako aukerak ahalbidetzeaz gain, elkar-ezagutza eta elkar-saretzea sustatzeko.

**J.2- Gogoeta konpartitua.** Ezer egitekotan, honako galderei erantzun beharko litzaieke lehenik:

- Nola antolatuko gara barnean, kanpokoekin aha-lik eta erlazionalean izateko?
- Udaletzeko zein arlo arduratu beharko litzateke ekintza komunitarioa bultzatzeaz? Non kokatzen da politika publiko hori? Zein zerbitzutan?
- Zer baliabide dira estrategikoak ekintza komuni-tarioa aurrera eramateko?
- Zer paper edo funtzio joka dezakete herri, es-kualde eta lurralde mailako elkarte eta erakunde desberdinek?

Inplikaturako sailak

Gai transbertsala izanagatik, Udaletxeko sail desberdinak inplikatzeko dituen gomendioa da. Eskualde mailako eta lurralde mailako erreferentzia-ko erakundeen parte hartzea eskatzen du gogoeta prozesuari dagokionez.

Aurrekontua

J.1- Tolosatzen Eskola Irekiaren baitan esperimen-tazio proiektuak.  
J.2- Gogoeta konpartitua (D gomendioaren baitan).

Izan ere, Tolosatzen Eskola Irekiaren bitartez aurrera eman daitezkeen ekintza experimentalak puntualak dira eta ez dute bere horretan adierazi-tako erronka edo kezken aurrean erantzun jarrai-tua bermatzen, eta ondorioz, behar den inpaktu soziala ahalbidetzen.

Tolosak ez du herritarrekin parte hartze prozesuak burutzeko eta ekintza komunitarioen sustapene-rako ekipamendu komunitario egokirik. Ezta ere elkargune izateko, elkarlanean jarduteko, elkar-eza-gutu, esperimintatzeko edota elkar-sortzeko gune diziplinartekorik, ireki eta anitz aproposik; ez behintzat aproposa denik.

Herri eragile anitzek modu kolektiboan proiektuak eraikitzeko, lankidetzan aritzea ahalbidetuko duen metodologia bat garatzeko eta hain beharrezkoa den hurbiltasun erlazionalean, elkar ezagutza eta errekonozimendua erretzuko duen espaziorik ez badago eta horri aurre egingo lioken udal adminis-trazio prestatu bat ez badago, oso zaila da arazo sozialei erantzun kolektiboak emateko proiektuak baldintza egokietan burutzea edo ekintzaren har-tzaileak izango diren inplikazio aktiboa lortzea.

Epeak

J.1- Tolosatzen Eskola Irekiaren baitan esperimenta-zio proiektuak urtez-urte.  
J.2- 2025 Gogoeta prozesua (D gomendioaren baitan).

# Espazioa eta gazteen aisialdia (13/18)

K.1

Batzarkideen gomendioa

HITZ  
GAKOAK

Justifikazioa

- 1\_ 13-18 urteko gazteek ez dute sarbide publikoko espazio estalirik inoren tutoretzapean egon gabe egon eta sozializatzeko (batez ere neguan).
- 2\_ Espazio autogestionatuak, honako hauek egiteko aukera emango dietenak:

- Autonomia garatzeko.

- Ardurak hartzeko.

- Praktika sozialean ikasteko eta garapen pertsonalerako.

- Garapen pertsonalerako.
- 3\_ Batzuk eta besteak elkartu, eta haien artean interakzioan aritzen ikasteko aukera emango dieten espazioak, ekimenak sustatzeko.

- Koadrila itxien dinamika gainditzea.

Deskribapena

- 1\_ Espazio autogestionatua (13-18 urteko gazteentzat).

- Erabilera, bizikidetzatza, ordutegi eta abarren diseinua eta erabakia.

- Prestakuntza gatazken kudeaketa arloan, gatazkak nola konponduko dituzten haien kabuz erabaki dezaten.

- Lagun egitea eta prestakuntza beste elkarte eta erakunde autogestionatu batzuen esku-tik, esperientzia partekatu eta diseinu-lanetan laguntzeko.

- Jende berria erakartzea, belaunaldi-aldaketa egin dadin.
- 2\_ Komunitateari begira jardueraren bat planteatzeko aukera.
- 3\_ Informazio/komunikaziorako lekua, gazteei interesa pizten dieten askotariko gaietarako, beste talde eta elkarte batzuek sustatuta (kirola, ekologia, euskara, feminismoa, bolunta-riotza...).

Nori zuzenduta dago?

13-18 urteko gazteei (Gazte Topagunea eta Bonbereneak hartzen dituzten adin-tarteak eta profilak aintzat hartuta).

Aniztasuna sustatzea eta ghettorik ez sortzea da helburua.

Inplikaturako eragileak

- 1\_ Udala, espazioa eta teknikariren bat eskaintzen duena.
- 2\_ Prestakuntzan eta lehen fasean parte hartuko duten talde autogestionatuak.

Besterik?

- Kontuan izan beharko gaiak:
- Ghettoak sortzea saihestea (etiketak, politizazioa, identitate itxiak); kolektibo itxi bihurtzeko arriskua.
- Eroso sentiaraziko dituen lagun egiteko pertsona, beharra duen une edo egoeretan lagunduko diena.

K.2

Gomendioari erantzuna

PROPOSAMENA  
BETETZEKO  
KONPROMISO-  
MAILA

KONPROMISOA  
HARTZEN DA  
ALDAKETEKIN

Udalak gomendioaren azken helburua ontzat ematen du, baina aldagetekin erantzute-ko konpromisoa adierazten du. Eta Hezkuntza Mahaiaren eta Nerabeen Parte Hartze Foroaren baitan emango diren hausnarketa eta ekimenen baitan kokatzen du gomendio honen erantzuna.

Tolosako Udalak gomendioarekiko bisioa

Topagune zerbitzuaren funtsa aisialdiaren eta heziketaren arteko elkartrukean oinarritzen da. Halaber, gaztetxoak herritar aktibo izateko prestatzea du xede, haien garapen emozionala eta autonomia sustatuz eta nerabeak gizartean murgilduz. Nerabeen bilakaera pertsonala sus-pertzeko, proposamen ludiko eta entretenigarria eskaintzen da; heziketa helburu izanda, aisialdia eta dibertsioa gure lanabes gisa baliatuz.

Nerabeak haien adinekoekin harremanak lantzeko espazioa da. Nerabeak erdigunean jarriz eta hauen inplikazioa sustatuz. Haien iritzia kontuan hartzen dira eta programa beraiekin elkarlanean osatzen da.

Nerabe guztiei zuzendutako elkargune inklusibo bat bermatzea da helburua, hau da, desberdinta-sun egoeran dauden nerabeei ere komunitatean integratzen lagundu nahi zaie.

Horrez gain, topagunetik kanpoko esparrua ere sustatzen da, herriko beste errealitate eta eragi-leekin harremana eginez, nerabeen presentzia gi-zartean indartzeko eta komunitatean txertatzeko.

Aldiz, egungo topagune zerbitzura gerturatzen diren nerabe gehienak 10-14 urte bitartekoak dira. Zerbitzua 12-17 urte bitartekoentzat bada ere, errealitatean erabiltzaileen profila beste bat da.

Zer egingo du Tolosako Udalak?

Berriki burutu den Hezkuntza mahaiaren markoan eta Nerabeen Parte Hartze Foroaren iritzia aintzat hartuz, honako konproniso politikoa hartzen da:

**K.1- Nerabeen Parte Hartze Foroa.** Nerabeen Parte Hartze Foroa eratu asmo da (Haurren Hiria egitas-moa eredu bezala hartuz). Beraiekin diseinatutako espazioa, zeinaren baitan autogestioaren inguruko pedagogia egin ahalko den.

**K.2- Komunitateari begira jardueraren bat plan-teatzeko aukera.** Gazteen aisialdia aberastea eta gazteentzat baliabideak areagotzea. Autogestioan oinarrituta.

**K.3- Espazio autogestionatua. Azterketa.** Espa-zio publiko nahiz pribatuaren erabilera zabaltzeko aukerak aztertzea. Hemen ikastetxeetako patioak,

frontoiak eta gune estaliak publiko egitea aldarri-katzen da.

Adin tarte horretarako espazio berri baten irekiera aztertzen ari dira Hirigintza eta Gazteria sailetik.

**K.4- Gazteentzako interesgarriak diren hainbat gairi buruzko informaziorako/komunikaziorako lekua.** Bai Abastos, bai Nerabeen Parte Hartze Foroa, zein beste hainbat espazio, leku egokiak izan daitezke gazteentzako interesgarriak diren eta beraiek landu edota proposatu dituzten gai-i buruzko informazioa jasotzeko, transmititzeko edota komunikatzeko.

Gomendio honek H Gomendioarekin lotura du.

Inplikaturako sailak

Herritarrek, antolakuntza eta lurraldea.

Aurrekontua

15.000 € K.1- Nerabeen Parte Hartze Foroa.

Epeak

2023 K.1- Nerabeen Parte Hartze Foroa.  
2024 K.3- Espazio autogestionatua. Azterketa.



# Elkarte Gastronomikoak, gazteak 18–25

L.1

Batzarkideen gomendioa

HITZ  
GAKOAK

Justifikazioa

- 18-25 urteko gazteek, tabernaz aparte, elkartzeko lekuak behar dituzte. Bere autonomia garatzeko aukera ematen du.
- Elkarre gastronomikoak hor daude eta batzuen jarraipena arriskuan dago.
- Elkarre askotan ekintza desberdinak egiten dituzte herriarentzako, eta jarrai-pena bermatzeko modu bat da. Ekimenak zabaltzeko aukera ere badago.
- Gazteentzako, komunitatean bizitzeko esperientzia da.
- Udalak diseinatu dezake konbenio bat elkarre gastronomikoetan gazteen parte hartzea errazteko (dirulaguntzan baldintzak).

Deskribapena

Udalak sustatzea baldintza eta beharrak, hitzarmenak gazteen sarrera eta parte hartzea sustatzeko.

Udalak dirulaguntza ematen du gazteak kuota osoak ordaindu ez ditzaten.

Modu honetan, Elkartean sartzen banaiz, jarraipen baten konpromisoa gazteen aldetik. Formulen bilaketa: askatasuna bermatu vs jarraipena babestu.

Nori zuzenduta dago?

18-25 urteko gazteei.

Inplikaturako eragileak

- Udaletxea.
- Elkarre gastronomikoak.
- Gazteak (banakakoak eta taldeak).

Besterik?

- Elkarre bakoitzaren egoera desberdina izan daiteke, gazte berri asko onartzeko.
- Formula desberdinak erabili daitezke gazteak elkarreetan banatzeko: listak, zozketak...

L.2

Gomendioari erantzuna

PROPOSAMENA  
BETETZEKO  
KONPROMISO-  
MAILA

EZ DA  
KONPROMISORIK  
HARTZEN

Udalak gomendioaren azken helburua uler badezake ere, egungo kontestuan ezin du aurre-ra eraman. Izan ere, Tolosak ez du gaiari buruz eskuduntza propiorik eta elkarre pribatuen jardun eremuan sartzea suposatuko lukelako. Aldiz, elkarriketa prozesua zabalduko du gomendioaren inguruan.

Tolosako Udalak gomendioarekiko bisioa

Covid-19ak sortutako pandemiak eragin zuzena eta sakona izan zuen osasun eta zaintza sistemetan. Eta eragin honen ondorioz, ongizatea eta zaintza hornitzen duten esparru eta agente ezberdinen arteko elkarlanaren beharra inoiz baino ageriagoan geratu zen, eta, osasun eta zaintza alorretik harago, administrazioak elkarlan publiko-komunitarioaren aldeko apustua egitearen beharra agerian geratu da.

Zentzu horretan, elkarre gastronomikoek, herrian dute zabalpenagatik eta beraien baitan sortzen diren ekimen desberdinengatik, gazteak herriko beste adineko herritarrekin eta eragileekin harremana egitea ahalbidetu, beraien presentzia herriko esparru desberdinetan indartu eta komunitatean txertatzeko aukera eskaintzen dute.

Aldiz, elkarre gastronomikoen jardun eremu eta espazioak udal eskumenetatik kanpo daude.

Zer egingo du Tolosako Udalak?

Tolosako Udalak Siadeko-ri 2021 urtean, haur, nerabe eta gazteen diagnostiko eta planaren enkargua egin zion eta lan ardatzetako bat parte-hartzea, herritartasuna eta komunitatearekiko lotura sustatzea izan zen. Eta emaitzetako bat izan zen gazteen parte-hartze zabala, iraunkorra eta eraginkorra sustatzeko siste-ma diseinatu beharra dagoela, gazteengana hurbiltzeko guneak-eragileak eta kanalak zehaztuz.

Nerabe eta gazteen bilgune diren espazio eta eremuak identifikatu eta bertan, euren ekarpen eta parte hartzea sustatzeko kanalak zabaldu behar dira. Gazteak dauden eremu horietan, gaztetxe, elkarre gastro-nomiko, karroza eta konpartsa elkarreak...

K.1 Elkarriketa eta azterketa prozesua.

Horregatik, gomendioa betetzeko konpromisoa hartzeko baldintzetan ez badago ere, elkarre gastrono-mikoetan 18-25 urte bitarteko gazteek izan dezaketen espazio-aukera aztertze-ko Tolosako Udalak elkarriketa prozesua zabalduko du inplikaturako eragile desberdinekin.

Inplikaturako sailak

Komunitatea eta Gobernantza, gazteria, azoka eta feriak.

Aurrekontua

Epeak

2024 Elkarriketa eta azterketa prozesua.

# Natura sortzea hainbeste asfaltoren artean

## M.1 Batzarkideen gomendioa

HITZ  
GAKOAK



Natura  
Komunitatea  
Emozioak  
Interakzioa  
Kultura

Justifikazioa

Naturarekin harremana galtzeak ondoeza sortzen du.

Naturarekin harremana izateak lagundu egiten du bizitzari buruzko beste ikuspegi bat izaten. Balio jakin batzuk izatea dakar: begirunea, zaintza, zeregina, elkartasuna, ezagutza... Balio horiek lagundu egiten dute komunitatearekin eta gure inguruarekin harremanak izateko modua aldatzen.

Frogatuta dago naturarekin zuzeneko harremana izateak lagundu egiten diola ongizate fisiko eta emozionalari.

Interaktibitatea indartzen du (fruituak biltzea, partekatzea, prestatzea, probatzea...).

Komunitatea indartzea, sormenari, interaktibitateari eta belaunaldien arteko harremanari lehentasuna emanez, eta oinarri-oinarrizkoa da espazio seguruetan aritzea.

Deskribapena

Baratze-parkea indartzea. Barazkiak ekoizteaz gain, emozio positiboak ere ekoizten ditu. Lehendik dauden parkeak indartzea eta optimizatzea (Zabalarreta, Eloseg, Norvegiarrena, Zumardia...).

Espazio berde berriak sortzea biribilgune, erdibitzaile, ezpona eta abar baliatuta. Didaktikoak eta interaktiboak izan daitezke.

Parkeetan kultura txertatzea: kontzertuak, dantza, antzerkia, hizlariak...

Maskotekin egoteko lekuak, maskotarik gabekoak eta maskotekin interakzioan aritzeko lekuak bereiztea. Adibidez, urmaeletan ahateak, arrainak, dortokak, edo beste animalia batzuk; hala nola oiloak, untxiak, astoak... (oldarkorrek ez diren animaliak). Animaliekin interakzioan aritzea mesedegarria da ume nahiz helduentzat.

Belaunaldien arteko bat-egiteak sustatzea alderdi ludikoa landuz (jolasak, irakurketak, lehiaketak, esperientzien transmisioa...), eta eguna pasatzeko atseden-lekuak jartzea.

Natura behatzearekin lotutako proiektu pedagogikoak sortzea (landareak, zuhaitzak, animaliak), sormena erabiliz (kremak, marmeladak, esku lanak, etab.).

Nori zuzenduta dago?

Herritar guztiei.

Inplikaturako eragileak

- Udala. Herritarrak.
- Naturarekiko harremana indartzeko eta natura zaintzeko lan egiten duten elkarteak.
- Talde kulturalak.

Besterik?

Edukiontzia, komunak eta abar jartzea espazio horietan, garbi eta osasungarri egon daitezen.

## M.2 Gomendioari erantzuna

PROPOSAMENA  
BETETZEKO  
KONPROMISO-  
MAILA



KONPROMISOA  
HARTZEN DA  
ALDAKETEKIN

Udalak modu orokorrean babesten du gomendioa eta horri erantzute aldera ekintza lerro desberdinak martxan jarriko dira, beti ere ingurumenarekiko eta naturarekiko hartueman zuzena ahalbidetuz eta gure ekosistema zaintzeko egitasmoak aurrera eramanez.

Tolosako Udalak gomendioarekiko bisioa

Tolosako udalak betidanik izan du ingurumenarekiko eta naturarekiko jarduera proaktiboa. Hala ere, aipatu behar da Pandemia garaian indar gehiago-rekin azaleratu da betidanik herritarrek izan duten eremu berde eta naturalen beharra. Asko idatzi da azken boladan hiri eta herri handietan bizi garenok eta bereziki hurrek pairatzen duten natura defizitari buruz, eta honek eragiten dituen ondorio fisko eta psikologikoei buruz.

Beste alde batetik, klima aldaketak eta biodibertsitatearen galerak ekarriko dizkigun ondorio kaltegarrietaz jabetzen hasiak gara. Ondorio hauen eragina arintzeko eta hauei egokitzeko beharrezkoa da gure ekosistemen osasuna eta dibertsitatea zaintzea eta areagotzea, ekosistema desberdinen arteko loturak bermatuz, horretarako korridore ekologikoak eta baso autoktonoak sortuz.

Zer egingo du Tolosako Udalak?

**M.1- Baratze-parkea indartzea.** Iurramendiko Baratz Parkea dinamizatzen jarraitu eta hiri-baratzeak garatzeko laguntza eman.

**M.2- Proiektu pedagogikoak sortzea naturari erreparatuz.** Baso eskolarako espazioak egokitu. Eremu natural hauek baso eskolarako erabiltzen dira baina edozein pertsonak erabili ditzake. Eremu natural hauek zabaltzen eta mantentzen jarraituko da.

**M.3- Baso naturalak.** Tolosan ez dugu mendi publikorik, hori dela eta udalak baso lursailak erosten ahaileginduko da baso autoktonoak berreskuratzeko eta baso lursailen ondare bat izateko.

**M.4- Lehendik dauden parkeak sustatzea eta optimizatzea.** Tolosako eremu berdeen kudeaketa eta degradatutako gunek berreskuratzea, ondorengo kontzeptuak barneratuz: korridore ekologikoak, azpiegitura berdeak eta ekosistemen zerbitzuak.

**M.5- Espazio berde berriak sortu.** Degradatutako gunek berreskuratzea. Tolosan badira degradatuta

dauden eremuak, Zumardi txiki, Olarrain, San Esteban, Araxes ingurua...

**M.6- Jolasaren bidez belaunaldien arteko topaketa sustatzea/Proiektu pedagogikoak sortzea natura kontuan hartuta.** Biodibertsitate gunea: Adituen laguntzarekin Tolosako biodibertsitatea ezagutzeko. Ekimen hau indartu nahi dugu, jarduera intergenerazionala bihurtuz eta herritarrak saretz.

**M.7- Maskotekin egoteko gunek bereiztea, baita maskotarik gabeko lekuak eta maskotekin elkarreragiteko gunek ere.** Gomendio honi erantzuteko egitasmo konkretu edo prebisorik ez dago une honetan, jada txakurrentzat existitzen diren espazioez gain. Horregatik gai aztertze konpromisoa hartzen da.

**M.8- Tolosa Klima 2050 dokumentuan jasotako proposamenak aurrera eramateko konpromisoa.** Batez ere, 4. puntuko Naturaren erresilientzia handitzea eta 7. puntuko Arriskuei aurre hartzea.

Inplikaturako sailak

Herritarrak eta Lurraldeako zerbitzuak.

Aurrekontua

M.2- Proiektu pedagogikoak sortzea naturari erreparatuz 30.000 €.

M.4- Parkeak eta lorategiak 200.000 €.

M.6- Biodibertsitate gunea 30.000 €.

Epeak

2023 M.2- Proiektu pedagogikoak sortzea naturari erreparatuz.

2023 M.4- Parkeak eta lorategiak.

2023 M.6- Biodibertsitate gunea.



# Konfiantza instituzionala

## N.1 Batzarkideen gomendioa

HITZ  
GAKOAK

### Justifikazioa

Gobernu zentzudun batek, politika publikoetan eraginkorra izan nahi badu, eta helburuak bete, komunitatearen parte-hartzea sustatu behar du eta, hala, komu-nitatearen konfiantza irabazi.

Ekimen hauek sortzen dituzten dinamiketan denok irabazten dugu; bai politika-riek, bai herritarrek (Win-win).

### Deskribapena

- Mota honetako dinamikak indartu eta sistematizatzea. Behin betikoak. Jarraipena alderdi politikoen jarraipenaren gainetik. Gutxienekoen protokolo etikoak, gober-nuaz harago.
- Parte hartzea instituzionalizatzea. Publikoa-komunitarioa kohesionatzearen funtzioa.
- Erabakiak betetzea.
- Dinamiken jarraipena bermatzea. Lehenengo dinamika honen jarraipena egitea.

### Nori zuzenduta dago?

- Tolosako herritar guztiei
- Udalari: barruan ere elkarlanaren eskeman oinarrituta aritzea.

### Inplikaturako eragileak

- Udala
- Herritarrak

### Besterik?

## N.2 Gomendioari erantzuna

### PROPOSAMENA BETETZEKO KONPROMISO- MAILA

### KONPROMISOA HARTZEN DA ALDAKETEKIN

Udalak modu orokorrean babesten du gomendioa eta berau betetzeko konpromisoa hartzen du Tolosan indarrean den ordenantza betez eta gomendioen inplementazioaren jarraipena egiteko aukera emanez herritarren batzarreko kideei eta herritarren parte hartzea ahalbidetuz gomendioen inplementaziorako aurreikusitako egitasmoen baitan.

### Tolosako Udalak gomendioarekiko bisioa

Herritarren beharrizanei behar bezala erant-zuteak eta herritarren bizi-kalitate arrazoizkoa bermatzeak ematen diote legitimazioa udalari erakunde gisa.

Era berean, udala herritarrak duen hurbileko ad-ministrazioa izanagatik, hurbiltasun hori indartu beharra dago eta horretarako beharrezkoak dira: gardentasuna sustatzea, publizitate aktiboa, herritarrek politika publikoen definizioan eta gau-zapenean parte hartze zuzena izan dezaten parte hartze bideak eta tresnak garatzea, eta zerbitzu publikoen kalitatea bultzatzea, egiaztatze edo ebaluazio sistemen bitartez.

Tolosako Udaleko Gobernantza, Partaidetza eta

Gardentasunari buruzko Ordenantzak Tolosako Udalaren eta herritarren arteko harremanak eta parte hartzeko bideak arautzeko modu, bitarteko eta prozedurak zehazten ditu eta, horrenbestez, herritarrak ardatz dituen gobernantza ereduari sostengua ematen dion arautegia dugu.

Beraz, aipatu ordenantzaren betetzea da udala-rekiko konfidantza sustatu eta indartzeko bide zuzenena.

Era berean, legea betez, Tolosako Udalak, urte ha-sieran dagokion urteari begira aurreikusten diren parte hartze prozesuak zerrendatu eta horietan parte hartzea bermatzeko konpromezua adieraz-ten du, horren berri emanez.

### Zer egingo du Tolosako Udalak?

**N.1- Gomendioen inplementazioan eta jarraipe-nean parte hartzea.**  
Tolosako Herritarren Batzarreko herritarrei gomendioen inplementazioaren jarraipenean inplikatzeko eta Jarraipen Batzordeko kideekin batera jarduteko aukera emango zaie.

**N.2- Gomendioen inplementazio parte hartzailea.**  
Tolosako Udalak urtero onartzen duen Parte Hartze Programaren baitan jasotako egitasmoez gain, eta Tolosako Udaleko Gobernantza, Partaidetza eta Gardentasunari buruzko Ordenantzan jasotakoa betez beti ere, gomendioen inplementazioak ahalbidetzen duen heinean, onartu diren egitasmo guztietan herritarren parte hartzea bermatuko da.

### Inplikaturako sailak

Herritarrak, Antolaketa eta Lurraldea arloko sailak.

### Aurrekontua

### Epeak

- N.1- Gomendioen inplementazioa eta jarraipenean parte hartzea
- Jarraipen Batzordea – 2023ko iraila
  - Gomendioen inplementazioari jarraipena - 2023ko urria
  - Jarraipen Batzordea – 2024ko iraila
  - Gomendioen inplementazioari jarraipena - 2024ko urria

N.2- Gomendioen inplementazio parte hartzailea: Jarraia, egitasmo desberdinen exekuzioaren arabera.

# Datozen urratsak

2023ko martxoaren 25ean egindako saioan, Tolosako Udalak erantzuna eman die Herritarren Batzarrek aurkeztutako 14 gomendioei, zeintzuk inplementatuko diren eta zeintzuk ez eta horren zergatia azalduz.

Orain, gomendioen inplementazioari jarraipena emateko Jarraipen Batzordeak bi saio egingo ditu, 2023ko urrian lehena eta 2024ko urrian bigarrena. Biler horien ostean, aurkezpen publikoak egingo dira eta Tolosako Udaleko ordezkariak gomendioen inplementazioaren egoera azalduko dute. Saio horietan Tolosako Herritarren Batzarreko kideek hartuko dute parte, gomendioak aurrera nola eramaten ari diren aztertuz eta beharrezkoak ikusten dituzten ekarpenak eginez.

---

**Tolosako Herritarren  
Batzarreko  
egitasmoari  
buruzko bideoak  
eta sortutako  
materialak  
Tolosako Udalaren  
webgunean daude  
ikusgai, esteka  
honetan.**

